

TIPITAPA



02 TOP
10001-10002



Hurrengoan Ttipi-Ttaparen ale berezia:

Bukatu berria den Nafarroako Bertsolari Txapelketa oso osorik eskeiniko dizuegu.

tamendu bakoitzean egin ziren asanblada informagarrietan ere erabaki hoiek berak hartu ziren. Baina ELA eta CC00koek ez zuten hori errespetatu eta asanblada aurreko komitearen bileran asanblada informagarriak egin eta gero erreferenduma ospatzeko arrua agertu zuten.

Lehendabiziko asanblada Zalainan egin zen eta bertan aurkeztutako lehenengo puntua asanblada erabakigarria izan behar zuen hala ez eztabaidatu zen. Bozketarik egin ez bazen ere, bildu zirenen artean garbi ikusten zen gehiengoaren nahia asanblada erabakigarria izatea zela, baina ELAkoek eta CC00koek ez zuten sartu nahi izandu bozketa honetan; bait bazekiten galduko zutela. Istilu askoren ondoren ezer erabaki gabe amaitu zen asanblada.

Arratsaldean Lesakan egindako

asanbladan, goizean gertaturikoa errepikatu zen. CC00koek goizeko planteamendua atzera bota zuten, hau da, asanblada erabakigarrien alde baina ez zuten bozketarik onartzen. ELAkoek lehen zeukatzen postura mantendu zuten.

Asanblada hauetatik atera daiten konklusioa zera da, berrestrukturaketari buruz bi jokabide edo iritzi daudela gure lantegian: bata, ELA eta CC00koena, hauek ikusten denez, hitzez aborokinen aurka egongo lirateke baina praktikan negoziazio indibidualetara mugatzen dira, enpresaren jokoan sartzen direlarik. Ez daude mobilizazioen alde lanpostuak mantentzeko. Horregatik beuren interesa erreferendum batera joateko, bozketa horretan komeniotik kanpo daudenak, nagusiak eta guzti parte hartuko bait lukete.

Bertzea LAB eta Ezkerra Batuak

defendatzen duten alternatiba izanen litzateke, hau da, aborokinek ez onartzearen jarrera eta lantegi honetan inor ez dela sobera erraten duena, eta gainera borrokarako prest egongo lirateke.

BASERRIETAKO KARTEROA IZENDATJA.

Bazen ordua! Baserritarrak korrespondentzia puntuala edukitzeko, baserrietako karteroa izandatu dute. Pertsona hau aurkeratzeko, korreoskoek azterketa bat antolatu zuten eta erran behar da, euskara mailarik ez zutela eskatzen nahiz eta lanpostu honetarako beharrezkoa izan.

Hogeiren bat pertsonak bere burua aurkeztu zuten eta bat izan ezik denak langabezian zeuden. Ba, harrigarria idurituko baldin bada ere, lana zuena izendatu dute.

Zoritxarrez honelako kasuak maiz ikusten ditugu. Noiz arte?

IGANTZI

GAZTEAK PLANTATU EZ ZIRENEKOAN ... EMAKUMEAK PLANTATU


Nahiz eta Igantzin iñauteritako afizio haundirik ez egon, aurtengoa neurrigabekoa izan da. Bileretan bi edo hiru pertsona biltzen ziren eta aurtengoz iñauteririk gabe pasatzea erabaki zen. Bertzalde, azkeneko urteetan zehar emakumeek afari bat egitea egun horretan, ohitura egin da. Beraz, afari honen antolatzaileek musika edota iñauteri giroa espero zuten afariatik atera orduko. Pentsa ezazue beraz, emakumeen haserrea enteratu zirenean...! Eta iñauteririk ez zudela onartzen ez bait zuten, azkeneko momentuan heuren prestatu eta atera ziren moztu jantzi eta etxez-atxe es-

karian. Gauerako Jose Luis Sein soinu-jolea ekarri zuten eta biak arte jo zuen. Ez bait zuten nahiko besta egin, Lesakara joan ziren, oilarrak kantatu arte!

BUKATU DA II. MUS ETA PARTXIS TXAPELKETA

Aurtengoz bukatu da Igantziko Biltoki elkarteak antolatutako partxis eta mus txapelketak. Hauexek izan ziren irabazleak; Partxisean: Ondartxo eta Raimundo lehenik eta Lurdes eta Seberino bigarren.

Musean: Joxelu Retegi eta Juan Jexus Telletxea lehenik eta Anizeto Etxeberria eta Emilio Mendigutxia bigarren. Bukaera hau hagitz alai izan zen, afal ostean, Gregorio Mitxelena aritu zen soinua jotzen. Goizeko 5etan baratxuri zopa jan ondoren erretiratu omen ziren guztiak, zahar eta gazte.





Etxalarko eskola

Ez da oraingoa izanen, Etxalarko eskolaren arazoez arituko garen lehen aldia, eta seguruenik ezta azkena ere. Egia erran, erroilo hau ez da oraintxekoa eta gauza bategatik ez bada, bertze bategatik izan behar.

BORTZIRIETAKO EUSKARA BATZORDEAK, ETXALARKO ESKOLAREN JARRERA SALATU DU.

Joan den Otsailean Bortzirietako Euskara Batzordeak, Lesakako Herriko Etxean ospatu zuen batzarrean, Bortzirietako euskararen egoera eskoletan zertan dagoen aztertu ondoren, agiri bat zuzendu zion Etxalarko Udalari.

Aipatu behar dugu lehenbiziko, Bortzirietako Euskara Batzordea, bertako Udalek, hau da, Bera, Lesaka, Igantzi, Arantza eta Etxalarkoak osatzen dutela. Aipatutakoez gain, partaidetza dutenak, euskararen arazoaz kez-

katurik dauden hainbat kolektibo, elkarte, pertsona eta hauekin batera, Bortzirietako ikastola, lanbide eskola eta eskoletako ordezkariak dira.

Sarrerera ttiki hori egindakoa lotuko gatzaizkio berriz hariari eta aipatuko dugu laburki bada ere, agiriak zioena:

"- Bortzirietan euskararen egoera eskoletan aztertzerakoan, Etxalarko eskoletako irakasleak egin diren bilertara ez direla agertu.

- Guk jaso ditugun dato eta informazioen arabera, eskola horretan euskaraz edo euskara ordu gutti irakasten dela, nahiz eta bertako bi irakasleak erreziklajeko kurtsoak eginak izan.

- Eskolako guraso batzuren keskak kontutan harturik, Euskara Batzordeak, Udalbatzar horri

zera eskatzen dio:

Bilera bat egin dezatela irakasle eta gurasoen ordezkariekin gai hau argitzeko eta elkarrekin eztabaida dezatela."

Horreraino agiriak zioena. Oraingoz hor gainean agintzen den bilera hori ez da egin. Beraz, hurrengo Ttipi-Ttapan kontatuko dizuegu bilera horretan gertatutakoaren berri, eta ea soluzioren bat ematen zaion arazo honi. Guraso eta Udalekoek ez daude hortarako gogo faltan. Ikusi behar zer dioten irakasleek.

Baina ezin zitekeen beti, dena bide txarretik joan. Herriko Etxetik gaztigatu digutenez, heldu den urterako irakasle edo maistra berri bat izanen dugu.

ESKOLAKO BAKANTEA KONTXESI
ARANGOA-RENTZAT

Hezkuntza Ministeritzaren Nafarroako ordezkariak, onartu zuen azkenik Etxalarko eskolara-ko bakantea. Datorren urtetik aintzinerira eskolako irakasle berria, Kontxesi izanen da.

Etxalarko Ikastolan urte batzuez aritu ondoren, Igantziko eskolan ari zitzaigun azken urteotan, beti ere, euskarazko irakaskuntzaren bidea jorratuz.

Ea behingoz Etxalarko eskoletan, euskarari zor zaion postua ematen zaion eta jartzen zaizkion trabak, gaintetik kenduko ditugun.

Eta berrikuntzekin hasi garenez bertze berri on bat eman beharrean gaituzue:

ESKOLA BERRIAK

Herri Taldeak bere kanpainen aipatzen zuen gogoa, badirudi azkenean beteko duela. Proiektoa, Hezkuntza Ministaritzak

onartu du eta bi fasetan banatuko da.

Ez da erraza izan Hezkuntza Ministaritzako Nafarroako Delegazioak, egiazko soluzioa eskola berria egitea zela konbentzitzea. Beraientzat nahikoa litzateke oraingo eskola zaharrak pixka bat moldatu eta gibeledu aldetik petatxo bat emanaz haunditzea. Azkenean nonbait, Herriko Etxeak bertze terreno bat eskeiniko zuela eta, beraiei berdinduz zitzaiela eskola han egitea eta, elkar hartu zuten.

Dagoenekoz gehienak jakinen duzuen bezala, terrenoa, gaineko landatan erosi du Herriko Etxeak, señor Benitoren landa bat, hain zuzen ere. Hortarako beheko kanpamenduko zelaia, zurgindegi bat egiteko asmotan dauden Lesakar batzuei saldu, behar izan die eta handik ateratako diruaz señor Benitori landa erosi.

Proiektoa bi fasetan banatzen zela erraten genuen arestian. Lehen fasean, 46 milioiko aurrekontuaz, 620 metro kuadratu


eraikuntza egitea pentsatzen da.

Seirehun eta hogeit metroko orubea izanen duen eraikuntza horrek, eskolaurrerako gela (orain hospitalilloan dagoena), lehen etaparako lau gela eta bigarrenerako bertze lau izanen ditu. Hauetaz gain, liburutegia, laboratoriora, jantokia, etabar. Ikusteko dago oraindik (subentziorik lortzen bada, tokia, e.a.) hainbat aldiz aipatutako frontoi estalia bertan egiterik izanen den ala ez.

Bigarren fasean, berriz, hasieran aipatutako instalazio horien mobleztatzea litzateke.

Eta aipatutako guzti hori ea noizko bukatuko duten? Ba, Iruñean diotenez, 89-90 ikasturteari eskola berria emanen zaion hasierarako. Hala bedi.

Eta eskolako gaia alde batera utziaz, goazen bertze afera bat aipatzera



Etxalarko kontsultorio berria

ARANTZA

ETXE POLEMIKOA

Ari da bai zer erranik ematen Goien Burun eraikitzen ari diren etxe horrek. Etxea iatxun bukatu badago ere, ez ordea Herriko Etxearekin daukaten auzia, (ez behintzat lerro hauek idazteko orduan) eta auzi honi buruz zertxobait jakite arren Herriko Etxera jo dugu guk.

Heurek erran digutenez kontua 1986.eko urtetik omen dator. Orduan "Normas Subsidiarias" delakoak aldatu behar zirela ikusirik bando bat bota omen zuten herriari informatuz obra berririk egin nahi zuen guztia aintzinetik udaletxetik pasatzeko eta bertan emanen zitzaizkiola baimena lortzeko bete behar ziren arauen berri.

Ba, 1987.eko ilbeltzaren 12an Juan Mari Iturriak Herriko Etxearen bandoari kasurik egin gabe (eta erran behar da garai hartan kontzejala zela) Goien Bu-

ru parajea bitzta bakarrako etxe baten eraikuntzarako lizentzia eskatu zuen.

Udaletxeak baimenari uko egin zion, horretarako "estudio urbanistikoa" eta "proiektu de urbanización" delakoak aurkeztu behar zituela aldarrikatuz.

Erabaki honen aurka inolako errekurtsorik aurkeztu ez zuten erabakiak tinkotasuna hartu zuen.

Hala ere eta nahiz eta lizentziarik ez euki Iturria jaunak obrak hasi zituen.

Udaletxeak jarrera hau ikusirik obrak gelditzeko agindua eman zion eta eraikitakoaren legalizazio proiektua delakoa aurkezteko erran, bertzenaz bota egingen zuela gaztigatuz. Proiektu hau aurkezteko bi hilabeteko epea utzi zitzaion.

Nahiz eta udaletxeak obrak gelditzeko agindua behin eta berriro eman, Iturria jaunak


agindu hauek entzun ez eta bertara erresistitu zen eta obrak aintzinerara segitu zuten.

Bitarteko bide guztiak agorturik, 1987.eko azaroaren 20an udaletxeak indar publikoaz baliatu behar izan zuen obrak gerarazteko, bertan aktak altxatu zirelarik obraren egoera zehatza azalduz. Egun berean baita zigor expeditenteak ere ideki zitzazkion etxearen jabea, egilea eta obrak bideratzen dituzten arkitektoei.

Egun, "estudio Urbanistiko" eta "Proyecto de urbanización" delakoan antzeko estudio bat aurkeztu du bainan oraindik udaletxean "legalizazio proiektua" delakoaren zai omen daude, interesatuak aurkeztuko duela agindu baldin badu ere.

Bukatzeko hauxe utzi nahi izan ziguten argi eta garbi zinegotziek:

1- Iturria jaunari ez diotela bertze edonori baino deus ge-



Arantzako herria.



Siagorik eskatu, hain zuzen ere eta adibide gisa aipatu ziguten gauza berdín berdina eskatu zitzaiola orain dela gutti eta etxe polemiko honen ondo-ondoan eraiki zen bertze etxe bat egiteko eta garai haretan bera, (Iturria Jauna) zinegotzi izan arren ez zuela desadostasunik agertu.

2- Bertze bide guztiak agortu ondoren indar publikoa erabili beharrean aurkitu direla, heuren nahiaren kontra, noski; bainan heuren ustetan, bertze herritar guziendako arau horiek balio baldin badute, Iturria jaunak ere bete beharko dituela.

3- Eta azkenik, lizentziarik gabe, ez Iturria jaunak eta ez bertze inork ezin dezakeela etxerik egin.



MASAI IKASTAROA

Masai ikastaro bat eman da Arantzan, ilbeltza eta otsailean zehar, Iosu Irisarri sendagileak zuzendurik. Partaideak hagitx gustora gelditu dira ikastaro honekin eta gehiengoaren ustez, hasieran paratu ziren helburuak, hots, masaiarekin hasierako kontakto bat, masaiaren nozio batzuk ikasi eta talde esperientzia nolabait lantzea, erabat beterik gelditu dira.

Afari eder batekin eman zitzaien bukaera ikastaro honi eta bertan berriro ere gisa honetako ekintzak antolatzekotan gelditu ziren.

Beraz, hurrengoan abisatuko...

UDALETXEA "SAN JUAN DERMIO" LUR ZATIA EROSTEKOTAN

"San Juan Dermio"ren nolabaitzeko istorioa eginen badugu badirudi terreno bat erosteko sortu zen elkarte bat dela.

Nonbait garai haietan (ez da oraintzeko kontua) Isabel II.-aren garaian edo, liberalek botereaz jabetu zirenean, eleizari kendu zioten lur zati handi hori, (Arantzako Udal barrutiaren herena) eta saltzera atera zuten. Horrela herritar batzuk elkartu ziren terreno hau erosteko, elkarte bat sortuz terreno honen administrazioa eramateko.

Ba, lur zati honen salerosketaren zurrumurruak aspalditik datoz, izan ere, udaletxeari hagitx interesatzen zaio lur hau, herriaren zati handi bat dela kontutan eukiz eta bertan direla lurrik emankorrenak. Beterie bada saldu nahi duenik, elkarteko partaide guztiak eritzi berdinekoak ez badira ere.

Batzuk saldu nahian eta bertzeak erosi, beti izanen dira oztopoak elkarrekiko adostasunara iristeko.

Kontuak kontu oraingoan ba-

dirudi baietz. Jadanik badira bilera batzuk udaletxea, elkarte eta Diputazioaren artean eginak eta konponbide onean daude. Prezioa 20 miloetakoa izanen litzateke eta Diputazioak %40a ordainduko luke.

GOBERNUAK NAFARROAN DUEN DELEGATUAK ARANTZAKO UDALAREN ERABAKIA GIBELERA BOTA DU.

Bai, Herri Batasunak aurkezturiko mozioa eta Arantzako Udalak aho batez erabakitakoa, Gobernuak Nafarroan duen delegatuak, Udaletxearen kompetentzia ez dela erranez auzitara eraman du erabakia.

Nafarroan, OTANI zegozkion hauteskundeak zirela eta garbi azaldu zen militarismoaren aurkako jarrera: Bardeetako tiro poligonoaren deusestatzea, Arantza leku ez nuklearra izendatzea eta Udalbarrutian garraio toxikoak galeraztea aldarrikatzen zen aipaturiko mozioan.

ZUBIETA

Aurten Sananton, behin baino martxosoagoa izan zen.

Udalari, Mikel Mindegiari omenaldi bat agitea gogoratu zitzaion. Horretarako, aizkora apostua, harri jasotzea eta txingak antolatu zuten.

Meza eman eta gero, mundu guttia salda hartzera joan zen ostatueta. Gero aizkora apostua. Hauek izan ziren parte hartu zutenak: Olasagasti, Larrea, Larretxea, Jaunarena, Atutxa, Ugarteburu eta... txan txaan, gure Mikel Mindegia maitea. Kana erdiko enbor bat 47 kolpez moztu zuen eta bigarren aldian 45 kolpez eta denbora gutxiagorekin.

Perurena azaldu zen, 260 kiloko harria ezkerreko eskuarekin altxatuz. Berekin batera, Zelajeta Saralegi zeuden. Horiek guttiago jaso zuten, baina sasoi berdintsuarekin.

Larretxea ere hemen zegoen txingak jasotzen. Txinga bakoitzak 50 kilokoa zen eta 500 metro ibili zituen, zein gogo onekin egin zuen txalo jendeak!

Eta arratsaldean, musika izan genuen betiko Ramontxorekin. Gaueko hamarretan bukatu zen egun oroigarri hau.

Sananton, Sananton, guarda la mula tentazion!

Gero iñotik ospatu genituen. Urtarrilaren azkeneko igandean ohi dugun bezala. Orohar ederki igaro ditugu. Aspalditik agure elkarteak aurea hartzen digu eta lehen baino lehen heuren txabola zutitzen dute batez ere, zutokia ongi jartzeko. Aterpe hortatik, haatik... kea bai! Baina hagitz abudo erantzuna. "Saurik gabe ez da kerik". Horrez gainera bertan erretzen dituzten taloak, artopilak, piperopilak eta abar, ikusleek gustora dastatzen dituzte. Gu berriz han hemenka azken orduan karrozaren bat eraikitzeko; azkenean dene-

tatik azaldu zen, txakurretxe eta guzti. Nere ustez, honekin bai azertatu genuela, hamaika ume etorri ziren eta!


Bertzalde, herritarrak zoraturik gelditu ginen astearte goizean ustegabeko eguraldi dizdiratsua ikustean, esaten den bezala (iturriari ura dario eta Zubietari eguraldi). Hura jendetza, zirkulazio-zainden bat kontratatzekotan egondo ginen.

Joaldunak urteroa bezala, Itundar joaldunekin bizpahiru buelta herriari eman zizkioten. Ahari apostuak ere izandu ziren, baten faltan bi. Lehendabizikoak

huts galantak. Bigarrenak hamalau kolpe, eta utziaz gero, ehun gutxienez. Eta gazteria zer esanik ez, kontsejoan bilduta jan edan, solasean eta akordio soinuaz dantzatzuz. Eta goizero herriari buelta eman puxkak bilduaz. Arratsaldetan, musika pixka bat estalpean, gaztetiagoak gozatzeko.

Iñoti politikak izan ziren! Luzeak! Bat baino gehiago ezin akituz aritu ziren eta, batzuen ustez behinpein, baketsuak, borroka gutxi, odola gutxiago, hortz bat edo beste, bat edo beste hezur eta tira, denak lagun!

Laguna dugu ere Iturengo Isa-



Chouand

si alkate jauna, benetan! eta berarekin sartzen bagara borondate onez egiten dugu, berari borondatea ez diogulako ukatzen. Berari okurritzen zaio inñotiaren propaganda zabaltzea! Jende gehiago behar al dugu?

Negua eta eguraldiak ederrak izan dira, elurteak orain. Eta nola beti gerora begiratzen duen bat edo bat izaten den, garai batetik honantz iluntzean alderdi batean edo bestean sua bistatzen dugu. Azkenekoa "Alkapeko" pinadia, herriarena. Kontutan hartu behar dugu idortean baliaturik kiskaltzen dituztela. Zentzugabeko mozorro hauek, "Neron" erromatar madarikatuaren ondorengoak dirudite. Suzaleekin parekatzen hasi naiz eta biziki ardura dit horrek. Bazter guztiak ihartu baino lehen azaltzen dut salaketa hau. Noiz arte piromanoak?

Piromanoak? Eta hau ez dena, ze koño pasatzen da Ikazpean? Nori gogoratzen zaio ardi hil bat erre kara botatzea? Ez al da nahikoa zakar kamioia? Asteleheneretan eta ostiraletan, kamioi bat pasatzen da herritik. Inork ez dakiela ematen du. Zer? Eraindik ez gara ohartu edo ez dugu nahi? Bada ordua ba!

Ez da eskubiderik Ikazpea zakarraz betetzeko. Nor izan da lotsagabe hori? Orain dela asko, Ikazpean zakarrak botatzetik utzi genuen. Batzuk ez dira enteratu ere. Ea hemendik aurrera pixkabat saiatzan garen herria garbirik edukitzen.

Hurrengo aldian, mesedez, saiatu zaku baten sartzea eta plazan uztea kamioiak hartzeko. Inork ez du ezer esanen horregatik. Buru pixka bat izan behar da inoiz behin eta kasu honetan ez da askorik behar gauza ona egiten ez dela ikusteko.

Soluzio bat bakarrik dela ikusten dut, zakar kamioia egunero pasatzea. Hasieran astean behin izaten genuen. Gero, bi al-



diz. Eta orain... egunero? Zakarrak biltzen dituzten gizonak atsedean txiki bat behar dute beren lanean, ez da?

Atsedean bat ere hartu beharko dugu Aranaztarren aurka daramakigun gerran. Han eta hemen, mundua zabala ez bagenu bezala! Hona azkeneko adibidea.

Azken igande hoietako batetan, Aranaztarren aurka jokatzen genuen futbito partidua, Bortzirirak, Baztan eta Malda Errekako Futbito Txapelketan.

Ze partidua! Azkenean "ja!" Zubietarrak irabazi 6-4. Galtzen hasi ginen bainan minutuak pasa eta gol bat, bestea, honela 5 eta 2 aurrean jarri arte. Gero pixka bat moteldu ginen eta 5-4 arte hurbildu ziren, baina pixka bat lasaituz seigarren gola sartu genuen eta berehalaxe partidua bukatu zen.

Nahiko nekatuak zeuden Santxo, Fermin, Hilario etabar, Aranaztarrek laster asko egin arazi bait zieten.



Eta beste kapitulua, Ekaitzarena, ikusiko dugu. Momentuz Udalaren eskuetan da eta, bada-kigu, ez da gaurtik biharrera konponduko, bere denbora behar bait du! eta Euskal Telebistak, eta urarenak. Azken honek gure kezka sortzen digu ere; oraindik hasteko bada noiz bukatuko? Festetarako, bai?

Uraren lana hasi ez bada, eskolakoa bukatu omen dute, kurtso erdialdean, plazotik urrutira eta, azken finean, ahal izan du den moduan. Teknikoen fun-

dispentsarioa? Bai txuloa hil Hemendik aurrera gelditzen den lana eskola betetzea eta eritegia hustutzea da, lan gogorra eta gorria. Gero eta gorriagoa zeren, duela bizpahiru ale proposatzen genuena, Monteroren zerritokian diskoteka-pub eraikitze proposamena, oztopo haundiekin topo egin du. Prezioa bat. Ez dakigu noizko eztabaidez eta Iturengo pizifaktoria eskatuz, Montero jaunari 100.001 pezetako isuna (multa) jarri diote; hai-zeak teiltatua txikitu dio eta

tu dugunez gero, Iberduerok, Le-moizkoa aurrera eraman ez deza-la ikusirik,... hementxe bertan! Iturengo ingurugune ez nuklearraren mugan, hain zuzen! Haizeak goitik behera heldu dira gehienetan!

Nola ugaritu behar horrela? Eskola bete eta eritegia hustu, nola? Ez da posible! Zurrumurru hau eroa dugu! Baina, nork sinistuko zuen -erotasunez ari garenez gero- Zubietan Kameiluek finkatu behar zutela? Bertan jai! Merkantilismoaren gauzak, dudarik gabe. Herrian badira gaizki hartu dutenak, zergatik ez ote eskeintzen, galdetzen dutenak. Prezio espezial batetan hobea! Juerga ederrak botako gemituzkeen!



Oharra.

Zurrumurruak beti izaten omen dute bi zati, egi inguruko gezurra edo, nahiago baduzue, gezurra inguruko egia. Total, Monterok saltzen duela bere entrepresa baina ez Iberduerori, ez! ez zentral nuklear bat jartzeko! Diotenez ekonomista famatu batek antolatutako talde bati saltzen dio. Lankide Aurrezki Kutxan aritua eta gero arditara lotu zen tipo berezi bat dugu hau, artzai ekonomista hain zuzen ere. Ia honek konpontzen duen inguruko artzaiek duten arazo larria, artzantzatik nola bizi.

tzioa hermandaten arteko koordinazioa omen da, esaten dute-nez... esan, esanen dute zeren, benetan, kasu honetan, hasieran eta bukaeran agertu da kasik bakarrik, derrigorrezkoak kobratzeko eta deskoordinazioa hermandaten eskuetan gelditu da: igeltseruak hau, zurginak hori eta pintoreak hura... Hau-ta-hori- ta-hura betil! Hori bai! izena jarri diote, eskolari, eta Zamalbide-koa dugu, zama astunegia bihurtzen ez bazaigu! Eta

argi edo eta argi indarraren postea Arrazuko landa erdian eroriak daude. Aiantamentukoak eskribuak bidaltzen dizkiote, abisuak ere, eta tipoak ni kaso! Auzolanean bildu eta gureganatu beharko dugu, patata edo artorekin hasi baino lehen.

Bigarrena Iberduerori saldu nahi omen diotelako, diru ugari- ren truke. Zertarako? galdetuko diozue zeuren buruari... Zurrumuru besterik ez da baina, adi-

Eta azken oharra gisa bertze bi berri txiki dauzkagu. Bat, Monterokoek edo entrepresa berri-koek Arrazuko landan zeuden poste okerrak zuzendu dituztela eta bigarrena, Dendaingo Pedrok joal- dunen ekipoa utzi duela, omenal- dia egin zioten martxoaren 26an, eta horrela... Nola sendatuko hemendik aintzinerara gerriko mi- naka?

ITUREN

MAKIL IPURDI ALDEKO ITXINDEGIA

Orain dela urte batzuk egin-dako itxindegia dugu hau, lur komunaletan egina eta zenbait zuhaitz, haritz-amerikano eta pinuz landatua.

Egin zenean, erraten ahal da ez zela ongi ikusia izan, batez ere hazienden berezko bideak mozten zituelako, oztopo egiten bait zien hango itxitura haiek.

Gaur egun haziendek bide berriak egin dituzte, baina hala ere ez da errespetatzen itxitura hori; bat edo beste burni-arizko itxitura moztera joaten baita eta ondorioz ardiak mazka-mazka hango belar ez ezik zuhaitz landare berriak ere jaten ari.

Udala honetaz arduratu da eta kezkatu ere bai. Neurri gogorrek jarri nahi ditu kalte egileari, multak hain zuzen ere.

UDAL LANPOSTUAK

Udalak garbitasuna egiten duen langileari beste sei hilabeterako berri dio lan kontratua.

Baina, datorren ekainean lanpostu hori konku tsora ateratzeko asmoa du eta oraindik ez dakigu zein baldintzetan, bakarrik zera, urte batetarako izanen dela.

Dena den, udal honek zenbait zerbitzuen ardura bere gain du, garbitasun kontuan. Horrela, udaletxea, eskolak, kirol koordinadorearen gela eta "oposizio" gela (HBkoak), sanitarioen kontsultak, hain zuzen ere.

Erran dugun bezala, ez dakigu zein motatako kontratua izanen den; lehen, diru eskeintza tti-

kiena egiten zuenari ematea izan zen, besterik gabe. Baina diru kantitate horiei (1000 pzt. goiti edo behiti) begiratzea baino edo, ez ahal da garrantzitsuagoa lan honen kalitatea?

Aunitzetan ez zaio behar den tokia ematen horrelako lanpostu bateri. Udalak bere gain hartu behar du garbitasunaren garrantzia eta baldintza ezin hobetan lanpostu hori eman, gero fruituak hartzeko.

Errate baterako, eskola bertako garbitasuna, haurrak hainbertze ordu egon behar dutenean, edo kontsultakoak ongi egitea merezi du eta horretarako ez da asuntua zeinek diru guttiago kobratuz egiten duen baizik eta ongi egitea eta pertsona horri, langile horri dagokion baldintzetan kontratua egitea.

Nolabait ere lanpostu hori ongi antolatua egotea izanen litzateke asuntua eta baldintza egokitan ordaindua izatea. Udalak albintearen lanpostua duen bezala, garbitasunarentzako ere bertze bat ateratzea; gero nola bereizten den langile hori izanen litzateke asuntua. Behar bada, orain arte lanean aritu denari kontutan hartu beharko litzaioke eta lanpostu hori ongi antolatuz, planifikatuz.

ZABORRETARAKO KONTENEDOREAK

Aspaldi hasi zen Maldaerrekan zabor-gauzari tratamendu bat ematen. Iadanik erran daiteke inori ez zaiola gogoratzen zabor boltsak ugaldere botatzea, batez ere bilketa zerbitzua hasi zenetik. Eskerrak "Loreak" egin



zuen lanari, jendea konturatu bait zen eta hasieratik bilketa berezia egiten hasi zen zaborrak, botailak, kartoiak berezirik atereaz. Geroa, "Loreak" planifikatu zuena, ez zen osoosoan bete, interes desberdinak zudelako administrazio aldetik eta Diputazioak beste bide bat jarri zuen "Intzineradorearena". Gaur egun zabor guztiak, inongo bereizketarik gabe Labaioan dagoen tresna horretan erretzen dira. Baina udalak sortu duten mankomunitate horretan zabor asuntu honi bueltak ematen ari zaizkio. Horrela, heuren azken asmoa hauxe da: herri guztietan kontenedoreak jartzea, Itureni 8 dagozkio, horrela jendeak ontzi horietan sartzen ahal ditu zabor boltsak etxean eduki gabe, zeren astelohenetan eta ortzi-raletan bakarrik pasatzen baita zabor biltzailea.

Hurrengo pausoa, hemendik 2 edo 3 hilabetetara berriz ere zabor bereizketa egitea izanen omen da. Lehenxeago aipatu dugun kontenedore horien ondoan bertze kolore batetakoak paratuko dira eta horietan kristal gauza bakarrik botako delarik.

Kontenedoreak metro kuadratuak izanen dira 800-1000 litroko kapazitatea edukiz, eta estalkia ere izanen dute. Beraz, herritarren lana zera izanen da, xuxen jokatzera zaborrak barrura botatz, eta ez kanpoan utziz, ontzia betea aurkituz gero, hurbilen dagoen bertze kontenedorean utziz. Etxeak ez ezik herria ere garbia zaintzea denon poza, gozamena eta osasuna baita.

MIGELTXO MAKUTSORI OMENALDIA

1987ko Azaroaren 15ean, Aurtitzko bestetako igandean hain zuzen, omenaldia eskeini zitzaion herriko txistularia den Migeltxo Makutsori. Seguraski zenbaitzuk ez dute ezagutuko guretzat hain ezaguna den gizon hau, beraz saiatuko gara bere bizia pixkat kontatzen.



Makuso, bere alaba eta Fermin.

Mutiko koxkorra zelarik solfeoak ikasten hasi omen zen herriko apaizaren ondotik, 1946-an txistua jotzen ikasi nahi zuela eta Narbarteraino joaten hasi omen zen astean bi aldiz, bertze bizpahiru lagunekin. Garai hartan oinak hagitz preziaituak zirenez eta bertze mediorik ez zegoenez oinez egiten omen zuen, Aurtitztik NARBARTE arteainoko joan-etorria. Han Alberto Agirre izan omen zuen maixua eta ikasi zuenarekin 1948ko maiatzaren 14an Ezkurrako herrikan txistua jo zuen lehenbiziko aldiz jende aintzinean.

Beranduxeago, maiatzaren 27an, Ittongo plazan jo zuen. Bertze gauzen artean dantzari talde batzuen txistularia izan da, errate baterako: Iturengo dantzari taldearekin ibili zen 1957 eta 1963ko urteen artean

- Sunbillako dantzariekin ere bai 1961ko urtetik aintzina.
- 1976an, bere auzoan, Aurtitzten, sortu zen dantzari taldearekin.
- Aurtitzko Ioaldunekin batera.
- Doneztebeko dantzariekin.
- Sunbillako dantzari ttikiekin.

Honetaz gain Maldaerreka, Baztan eta Bortzerrietako herri gehienetan ibili da eta baita Donostian, Durangon, Baionan, Bidarraien, Lourdesen, Getxon, Herri Urratsen, Nafarroaren Egunan eta Nafarroa Oinezen.

Altzairuzko birrikak dituen txistulari honek auzitan solfeoak mugak parartzen dizkiola aitortzen du, bere solfa-ezagupenak murriz xamarrek direlako baina hala eta guztiz erreperitorioa berritzen saiatzen omen da zenbait armonizazio eginez

Denen asmoa, helburua hauxe da: higienari, gure egunerokoan garrantzia ematea, bai eritasunei aurre hartzeko, hala nola ohitura osasungarriagoak izateko.

KULTUR ETXEA

Udalaren babesean, otsailen hasi zen martxan zentru hau.

Hasiera batean, zinea izateaz aparte, liburutokia eta bideo haundi bat paratzea zen asmoa.

Zinea martxan dago, larunbatetan gauko 10'30etan eta igandetan berriz 5etan eta 8tan botatzen dira pelikulak. Maiatza arte iraungo du plan honek, urrian berriz hasteko.


MANKOMUNITATEA

Mankomunitate hau, zabor gauzei tratamendu egoki bat emateko antolatu zen hasieran. Heuren estatutoak egin ondoren, arduradunek izendatu dira, horrela, presidentetarako Jose Antonio Arrieta Zubieta, ordezkoa Pedro Larraza, Tesoreroa, Miguel Saldias Erasun eta idazkaria bezala, Sunbillako idazkaria dena, Manuel Irigoien, hain zuzen ere.

Mankomunitate honen funtzionamendua ezin hobea izateko asmoz, pertsona bat kontratatu nahi da, ez denbora osorako baina bai lan administratiboa, zabor biltzetaren zerbitzuaren egoera, intzineradorea eta abar kontrolatu eta miazteko.

Bertzaldetik, zenbait baldintza eskatzen zaizkio zabor biltzeta egin behar duenari; hauen artean, kamioia behar den haina garbitzea, kontenedoreak ere garbi uztea, zaborra biltzen den egun berean erretzea eta abar.

Mankomunitate honek zerbitzu hau egiteko, kamioi bat eduki



Malda-Errekako zaborrak errausteko labea. Labaien.

beharko du, 10m³ kapazitatearekin eta elebadorea ez ezik konpaktadorea ere duenean, kamioi horrentzako seguro obligatorio eta boluntarioa paratuko zaizkio.

100 kontenedore izanen ditu eta horrela banatuak:

Iturenen 8, Zubietan 4, Elgorriagan 4, Ezkurran 4, Erasunen 4, Saldisen 3, Labaienen 6, Urrotzen 4, Oitzen 3, Donamarian 6, Donezteben 15, Sunbillan 10 eta Bertizaranan 12.

Biltzeta berezia egiteko berri, 20 kontenedore erostea erabakitzen da.

KIROL KOORDINADOREA

Ezkurra, Saldias, Erasun, Zubieta, Ituren eta Elgorriagako Udalek Herri Kiroletarako ko-

ordinadore bat kontratatu nahi dute.

Koordinadore honen lana hauxe izanen da: informazioa ematea kirol gauzetan, zenbait kirolen promozioa, antolaketa, planifikazioa, koordinazioa, kirol egitea, ebaluaketak eta abar.

Kontratua hasiera batean urte batetarako izanen da, hala ere gerora luzatu daitekeelarik 40 ordu artean eta urtean 14 soldata, bakoitza 60.000 pztakoa.

Kirol koordinadore honen bulegoa Iturengo Udaletxean egonen da kokatua. Ea ba, inguru hauetan kirolak bizkortzen diren, eta ez bakarrik mutilentzat, neskak ere parte hartzen ahal dute.

ZUGARRAMURDI

* EGUERRIAK

Pastu ziren aurten ere eguberriak. Gure herri huntan bertze batzuetan bezala eguberriak Olentzeroren etortzearekin hasten dira. Olentzeroren ohitura hau berriz, berria da, lehen ez zen holakorik egiten, baina duela bortz-sei urte haurrak apezaren laguntzarekin mugitzen hasi ziren olentzeroa prestatzen eta bere kantuak ikasten eta ordutik hunat urtero eskolako haurrak segitzen dute ohitura polita hunkin. Ez da Olentzero "artistiko" bat ateratzen, batzutan iduri du kadirean etzana dela lo gelditua, bere pipa zintzilika, bertze batzutan berriz, mozkor porrot egina dirudi eta ia ia eroriurrena, kadirean trabeska agertzen zaigu; baina hala ere polita izaten da nolako ilusioarekin erematen duten haurrek bizkarrean herriko karrika guztietan barrena ikustea.

Lehen ere bazen bertze eguberrietako ohitura bat; San Silvestreko eskea. Hau abenduaren 31aren gauean egiten zen; herriko gazte guztiak (mutikoak bakarrik, hori bai) gauaren gainera ateratzen zirelarik etxe eta baserrietan barna eskean ibiltzera bertso batzuek kantatuz. Bertso hauek horrela hasten ziren:

"San Silvestrek igorri gaitu izar eder bat gidari
haren honretan ibil gaitzen
gaurko gau huntan kantari"

Gero etxe horretan ongi ematen bazuten, bertze bertso hau kantatzen zen:

"Etxe honetan eman digute guri
gere merexia
komeni bada sar dadiela Jaungoikoaren grazia"

bertzela etxe batetan ez bazuten deus ematen edo ez baziren ata-

rirat ere agertzen, bertze hauek kantatzen ziren:

"Ematekotan emazu bertzenaz
ezez errazu
zortzi libera trapu zaharrekin
ipurtziloa tapa ezazu"

Eta holaxe baziren bertze bortz bertso gehiago gau huntan kantatzen zirenak. Baina erran dudana bezala ohitura hau duela hogeitau urte edo hola, galdu zen eta gu, oraingo gazteria, jende komodoagoak bihurtu gara eta gau hortan etxetik etxera zalapartaka ibili beharrean, Herriko Etxeko ostatuan afari eder eta lasai bat egitearekin konformatzen gara. Aurten ere bildu ginen 90 lagun afaltzen gau huntan Zugarramurdiar, Saratar eta bertze iparraldeko herrietako jende batzuren artean. Manolo jaunak Hendaiako trikitixa bat ekarri zuen eta hala goizeko seiak arte dantza eta biraka ibili ginen urte berria errezibitzen. Ez zen tenore huntan bukatu besta, zeren goizeko 11etan 3 kotxe "galduak" ibilki zirela jakin genuen, azkenean Martineko atean gelditu zirenak karretera guztia trabatzen eta Norbertori, kapoaren gainean mapa haundi bat eratu zera galdetzen ziotela: "Loto-pizt de Beguet pog favog?" eta Norbertok bere Pazientzia sainduarekin erraten zien: "Aquí no hay ninguna autopista, están ustedes en Zugarramurdi". Hori dena Bittori Pikatxarreko Bordakoa kotxe barnetik irriz lehertzen ari zen bitartean.

Baina ez zen dena besta eta farra izan. Izan ziren ere 4 istripu; afal aintzinean izan zen lehendabizikoa, Saratar batzuek heldu zirelarik karreteratik atera ziren eta kotxea kolpatu zuten, baina ez ziren beldurtu eta bertze kotxe bat hartu eta agertu ziren afarirat; Baina ez zen hemen bukatu afera eta

goizaldera hauek berak, etxerat bueltatzen ari zirelarik, kune-tan sartu eta hantxe gelditu ziren bertze kotxe batek lagundu arte. Hirugarren istripua urteberri eguneko arratsaldean izan zen, Joxemari bere bestondo ikaragarriarekin, Otsondon, mendia jo eta gelditu zelarik. Eta azkeneko istripua ia urteberriko gauean gertatu zen: David Pikoia lo gelditua zen bere kotxe berran Altzateneko atean, hamarrak hamar guttitan iratzarri zelarik eta hamarretako Dantxarinako muga pasatu behar zuela ohartzera koan... baina ez zen mugaraino ailegatu Dantxarinako kuarteleko zubian karreteratik atera eta errekan sartu zelakoz. Azkenean Errotaxarreko-bordatik oinez joan behar izan zuen ongi frexkatu eta.

* IÑAUTERIAK

Otsailaren 14, 15 eta 16an ospatu genituen iñauteriak. Lehendabiziko gauean, igandean, arratsaldean hasten gara eta gure jantziak hauek izaten dire: Zugarramurdiko atorra, kapelua edo lastozko zapela, eta aurpegi guztia kolorez pintatua. Halako gisetan bentetara hurbiltzen gara eskean. Bentetatik aparte, bertze aldean ere sartzen gara eta Etxeberriko-bordako eta Xaldarmeneko-bordako bazterrak mugierazten ditugu. Gero Herriko Etxean afaltzen dugu eta hunen ondotik dantza izaten dugu jate-txe berean, agertu nahi duen guztiendakotz.

Bigarren egunean, astelehenean, sorginez eta deabruz jantziak, mendi aldeko baserrietara joaten gara eta han pasatzen dugu eguna, gure kantu, musika eta tarratekin mendi guztia airatzen. Erran behar dugu ere, egun huntan 20 lagun pasa bazkaltzen dugula Kaminoko-bordan deus ordaindu gabe gure aldetik: magra,





tortilla, txistorra, ardoa, gasna, fruitua, kafea eta kopak, denak guretako izaten dire Kaminoko-bordakoen borondatez, eta hola aprobetxatuko dugu gure esker hoberenak "TTIPI-TTAPA"tik bidaltzeko, iake ez duten bertzerik hartu nahi. Menditik jausten garelarik Alkerdirat joaiten gara; egia erranez, Alkerdi, Urdazubiko auzoa da baina nola Zugarramurditik arrunt hurbil den eta gainera aunitz tratatzen dugun elkar, betitik auzo hau egiteko ohitura izan da. Egun hau bukatzeko, Altxatenean afaltzen dugu eta aintzineko egunean bezala dantzaldia.

Eta azkeneko egunean bakoitza nahi duen bezala disfrazatzen da, eta horrela aurten ikusten ahal ziren zazpi esklabo beltz denak kate batera lotuak eta negrero bat latigo batekin beltz gixarajoak zigortzen; mexikanoak ere baziren, zingaroak, marinerroak, makarrak, exhibizionistak eta xingolatuak. Egun huntan goizean Madariako auzoa egiten

da, gero Armuan bazkaldu eta arratsaldean, azkeneko indarrekin, herria pasatzen dugu; besta, Odian afarria eta dantzaldia eginez bukatzen dugu.

Bainan erran behar dugu ere, gure gaurko inauteriak lehengotik pixka bat aldatu direla, adibidez, lehen eskea egitean puskak biltzen ziren "Ihaute, Ihaute, zingarra ta arroltze" kantatuz; orain ordea ez gara molestutzen ez eta saskia hartzen ere, dirua baizik ez dugulakoz biltzen. Bertze gauza da lehen oinez ibiltzen zirela alde guztietara, baserriz baserri, edozein sabaietan lo eginez eta; orain berriz arront komodoak bihurtu gara eta ez dugu herria baizik oinez egiten, bertze alderdi guztiak kotxeak hartu eta tira! furrindaka harat eta hunat, batere aspertu gabe.

Pentsatzen ahal da holako inauteriak pixkat "deskafeinatuak" direla, baina bertze aldetik erran behar da ere, inportante-

ena besta ona egitea dela eta humore ederrean ibiltzea, eta holako aferetan ez gaitu inorrek irabazten; sartu etxe batetan akordion eta pandereta soinuarekin, kantari eta irrintzinaka zintzurra larrutu urrana, dantzatzeaz gelditu gabe ondoko lagunarekin, etxeko andrèarekin edo mahai azpian den zakurrarekin... deneri jakin arazten inauteriak ailegatu direla.

Baita ere, ez ziren espektakulo itsusiak Pedro bere "Turbo-Special Inauteri 1988"rekin ikustea Gamioren GS kolpatu-zaharraren ondotik ekilibrioak egiten, Daniel harrapatu nahiez (hori bai, arbol baten gainetik begiratzen, porsiakaso). Edo irrigarria zen ere, goizeko 5'30 Txarli "Mehariarekin" elizako eskalera igan nahiez ikustea, Aurorak "Nere kotxeaaaaa!!! oihu egiten zuen bitartean.

Inauteri politik.

hotza. Gauzak aldatuko direla-koan itxaropena hala ere.

Leku egokia aurkitu genuen lo egin eta gosaltzeko. Gauzak non utzi izanez gero errezago ibiltzen da.

Lau egun oso egin genituen eta ez ginen ikusteaz aspertu. Harrigarria da Parixa. Hori bai, ongi jakin behar da hango lekuen berri, denborarik alferrik ez galtzeko.

Frantzesera ez da zaila eta saiatuz gero, moldatzeko adina ikasten da: guk ilea garbitzeko txanpu eskatu genuen denda batean eta hara non "jamon york" ateratzen diguten. Honela ikasi genuen txanpu eta "jamon york" esateko, arrunt antzekoak direla.

Hiriaren edertasunak, metroak, jende ezberdinak..., hauek Parixa erakargarria egiten dute.

Parixak merezi badu ere poliki ikustea, eguneroko bizitzarako, agian, hotza gerta daiteke: anonimoa, garestia, harremanak zabalatzeko zailegia... Nahiz eta jende asko bizi han (11 miloi)



ez da giza zalaparta haundirik sumatzen: metroan jendea isilik joaten da, erakurtzen edo, gehienez, inguruko jendea disimuloz azttertzen. Norbait kantari edo alai sumatuz gero, eskertu egiten da, irrifarrak sortzen dira.

Saiatu ginen neska txinatar

batzurekin argazkia ateratzen bainan, entenditzen ez zigitelako gure frantzes motela, edo seguraski, itsusiegiak ginelako beraientzat, gugandik ihes egiten zuten gure atrebentzia sari-tu gabe.

Ah, Parixa! Berriz ikusi arte.

Goizuetako HERRI BATASUNAK diru laguntza ukatu diola aldizkari honi deihadarka zabaldu dute, heuren oihartzuna ailegatu daitekeen lekuetara iritsiz.

Gure helburua ez da hau bezelako aldizkari bati laguntza ukatzera, zeren denok dakigu herri xehearen komunikabideak oso laburrak direla, oztopo handiak ipintzen dizkigutela alde guztietatik gure arazoez, gertakizunez,... eta abar mintzatzeko, baina batzuk maltzurkeria eta azpijokoa erabiliz horrelako adierazpenak zabaltzen dituzte, inolako zentzurik gabe. Gure herrian, egunero gertakizun interesgarriagorik izaten dugu, horrelako lelokeriarik idatzi gabe. Ez al da egia?

Abuztuko argitaraldian, izugarriko kezka azaltzen duzu A.E.K.koek, udaran Goizuetan

egin zuten barnetegia aipatzen duzunean, heuri lagundu behar geniola euskeraz poliki-poliki hitseginez "gure hizkuntza" ikastera etorri zirela esanez. Norena da euskara?

Euskara, Geografia (mendiak, mugarriak,...), Antropologia (trikuharriak, harrespilak,...), Euskal Kultura (Iñoteko berriak, herriko zenbait ohitura,...) eta abar, oso kezkatua azaltzen zaigu.

Ikusten duzuen gure arbasoen historia zati bat eta gaur egungoaren atal batez nahiko kezkatu dagoela dirudi mutil"iaio" honek. Abuztuaren 7an izandako plenoan HERRI BATASUNAK mozio bat aurkeztu zuen: gure herriko seme den Juan Migel Apezetxeari bisita bat egitera festa egun batetan. Mozio honi, bere botu ezezkoa eman zion.

- Ez ote zaio gure presoari euskera eta euskal kultura atsegin?

- Luis Fernandok, ez ote du ulertu oraindik gure presoen burruka, edo ez ote du ulertu nahi?

Aldizkari honen egileak eta irakurleak ulertu izango duzue honez gero, batzuk erabiltzen dituzten hizkiak, zenbait hitz eta esanmolde osatuz, esaerak apaintzeko. Hemendik aurrera aldizkari honetara berri gehiago bidaliko dugu. Goizuetako etxe gehiagotan sartuko dela ere hitz ematen dizuegu. Oraindik badira asko ezagutzen ez dutenak, eta ematen saiatzen diren itxura emanez gero, inoiz erosi eta irakurriko ez luketenak.

Laister arte.

GOIZUETAKO HB

« BATEGINIK KANPAINA »

GURE HERRIETAN

IKASTOLA EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN
BIDEAN.



Euskarak jasaten dituen erasoen aintzinean, Euskal Herrian, gure hizkuntza berreskuratu nahian, bertze ahalegin bat eginenez kanpaina zabal eta anbizio-soa eratu da, BATEGINIK kanpaina alegia.

Kanpaina hau, EHIK (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak) eta EKBk (Euskarazko Kulturaren Batzarreak) antolatu dute.

EHIKk bazekartzan lehendik ere 200 milioi biltzeko asmoa SEASKA, Zangotza eta Tuterako ikastolentzat. Bertze aldetik EKBk, Madrid, Paris eta Estraburgon euskara hizkuntz ofiziala izendatua izan dadin, 500 mila sinadura bildu nahian dabil, firma kopuru hori bait da, erreferendum bat eskatzeko behar dena.

Bi helburu hauek, beraz, izenak dioen bezala bat egin dute eta proiektu bat egin da, ahalik eta jende gehienak parte har dezan.

Erran behar, lehen ere izan genuela antzeko kanpaina bat, "Bai Euskarari" izenekoa hain zuzen ere.

Organismo eta partido aunitzek adierazi dute dagoeneko, beren adostasuna eta laguntza kanpaina honi dagokionean: HB, PNV, EA, e.a.

Kanpaina honek hiru fase izanen ditu:

1. fasea.- Propaganda eta in-mazioa.
2. fasea.- Kontzientziazio fasea.
3. fasea.- Ekintzak eta euskararen agerpena.

Ekintza aipagarriak ere izanen ditugu: BATEGINIK ZIRKOA, Futbola Manchester eta Euskadiko Selektzioa, Eskubaloia, Pilota, Super Tranp musika taldea eta abar luze bat.

Bainan kanpaina hau, erran dugun bezala, Euskal Herri osoko kanpaina bat da eta gure eskualdeetan ere jendea asanblada eta bileren bidez antolatzen ari da zerbait.

BATEGINIK

EUSKARAK ETA IKASTOLAK
MUGARIK EZ.

Horrela LESAKAN, aste kulturala egingen dute apirilaren 18tik 24era, Zinea, Hitzaldiak, Futbola "Beti Gazte - Gure Txokoa", Herri Afari bat, musika eta abarrez hornitutako astea.

ARANTZAn, Apirilaren 29, 30 eta Maiatzaren 1ean, asteburu kulturala antolatuko dute antzerki, erakusketa, Herri Bazkaria, bertsolariak e.a.ekin.

ETXALARren, Maiatzaren 7 eta 8an gauza bera egingen dute: Pi-

lota, filmeak, Herri Bazkaria eta soinulariak izanen direlarik bertzeak bertze.

BERAn Maiatzaren 2tik 8ra, bertze aste bat antolatuko da, leihaketak, partiduak, herri bazkariak eta abarrekin baita ere.

IGANTZIn ere asteburu kulturala antolatuko dute filmeak, herri bazkaria, artzai-txakur leihaketa eta abarrekin.

Gauza bera gertatzen ari da Baztan, Maldaerrekako eta gainontzeko herri guztietan.

Espero dezagun iniziatiba hau jendeak ongi hartzea eta kanpaina on bat egin ondoren, jendearen euskararekiko kontzientzia tinkoagoa izatea.

BORTZIRIETAKO ETA MALDAERREKAKO AEK GOBERNUA ETA AEK-REN ARTEKO AKORDIOAREN ALDE

Nafarroako AEK, euskarak behar duen laguntza eta bultzada emateko bidean, Gobernuarekin akordio batetara ailegatzea hoberrana izanen litzatekeelakoan Felones jaunarekin elkarrizketa batzu burutu ditu. Baina dirudienez, Nafarroako Gobernuak Basakongadetakoaren antzera ez dago euskara mailan lanean ari direnen baldintzak, bere osotasunean onartu eta bultzatzeko asmotan.

Hau dela eta, Bortzirietako eta Maldaerrekako AEK, "Gobernuek AEKri adarra jo nahi, AEK bere bidean jarrai" lemapean egitarau bat antolatu du:

Apirilaren 23an, Sunbillan, Arkaitz eta Zentzerrok taldeekin Gau-pasa.

Apirilaren 26tik 30era arte Berako "Gure Txokoa" elkartearen lehengo soinu tresnen erakusketa bat eratuko dute.

29an Juan M^a Beltranek, hitzaldi bat emanen du: Musikak, Euskal Herrian izan duen ebolu-



zioari buruz.

30ean Lesakan, Bertso jaialdi bat ospatuko da frontoian: Sarasua, Eguzkitze, Peñagarikano (gipuzkoarrak) eta, Arozena eta Aristorena Nafarroako txapelketan 2. eta 3. geratu zirenak ariko direlarik, tartean Txan-

bela taldea ere ariko da soinu pixka bat joz, txaranga antzera. Gero Arrano Elkartearen AEKfari bat izanen da.

Azkenik, maiatzaren 7an eta Lesakako Frontoian, Akelarre taldearekin bertze gau-pasa bat antolatuko dute.

URRALBURU JAUNAREN BISITA

Orain dela 5 edo 6 hilabete, Baztan-Bidasoaldeko Udaletako alkate-zinegotziek elkartu eta gure egungo egoeraz eta etorkizunaz eztabaidatu genuen. Bileran haretan eskualdeko egoera sozio-ekonomikoa nahikoa kritikoa dela ikusi genuen eta etorkizuna berriz beltza. Horregatik Nafarroako Gobernuarekin kontaktatzea erabaki genuen eta gure eskualdearekiko daukan planteamendua zein den jakin.

Horrela ba, Urralburu etorri eta mahai ingurua egin genuen. Mahai inguru horretan hauxe erran zuen Urralburuk: lehenengo pausoak komisio batzu eginez eta zoluzio bateratuak planteatuz eman behar genituela. Urrats horiek hiru zutabetan oinarritu behar litzateke:

- Industriaren promozioa.
- Turismoaren promozioa.
- Nekazaritzari laguntzea.

Industriaren promozioari buruz, gure egin beharra poligono industrial zabal samarra egitea izanen zen. Hau egin ondoren eta enpresak gureganatzeko, Gobernuaren laguntzaz eskeintza publikoa egin. Poligonoa, Lesakako Laminazioek Legasan daukaten 200.000mko zelaian egin daiteke eta hortara goaz.

Turismoari buruz berriz, honako hau da planteamendua: gure herrietako leku bereziak erreperatu eta ezagutzera ematea.

Honekin batera, gure herrietako jatetxeen zerrenda egin eta turismo kate edo enpresei eskeini.

Nekazaritzaren garapena edo desarroiloa berriz, zailagoa agertzen da. Baliagarri izan daitezken lur komunal guzikiak erroturatu eta hori egindakoan nahi duten nekazarien artean banatu. Bertze aldetik (Centro de Compras) bat egiteko asmoa ere badago. Honekin, nekazariak beti jakinen zuten bere produktuen prezioek eta baita ere non saldu, tratanteen eskutan egon gabe.

Hauek dira Gobernuaren planteamenduak, eta dirudienez, gure Herriko Etxeetakoak ere.

Plantementu hauekin, betiko formuletatik ez garela ateratzen argi ikusten da, hau da: sistema kapitalista, kontsumoa eta ekonomi haziera. Noski, ordu da zenbait galdera egiteko:

Komenigarria da guretzat turismoaren promozioa? Zenbatek segituko dute nekazaritzan nahiz eta lur komunalak belagitu eta nekazarien artean banatu, Europako Ekonomi Elkartek egiten duen presioa kontutan harturik? Gaurko industriak, teknologiaren aurrerapena dela eta, zenbat lanpostu berri eskeini dezake?

Uste dut horiek ez direla guretzat benetako soluzioak, gure produkzio sistema bertze modu batetara antolatu beharko genuke.



Modu bat izanen liteke (superfloa, luxoa) utzi eta beharrezko kontsumoa bultzatzea (autokontsumoa). Gure luraren produktua geuk transformatu geuk kontsumitu eta sobratzen bada, saldu. Jende guziari bere baratzte, behi edo txerriak edukitzeko aukera eman, lurra eskeiniz. Geuk antolatu geure kultur taldeak eta hori kontsumitu, telebista itzaliz. Hau da, gure luraren menpean egon, bertzeen eskutik ibili gabe. Utopia bezala har dezakegu hau, baina egunetik egunera ikusten dugu, mundua, bere ikaragarritzko sistemarekin, ez dela gauza jendeen gosea kentzeko (ikus hirugarren mundua eta gure munduaren zenbait jende). Horregatik, zenbait aldatzeko beharrean gaude la garbi dago.

J.E.



Lanpostuaren hizkuntz perfila edo hizkuntz eskakizunak finkatzeko, lehenbizi udaleko organigrama eta lanpostuen zerrenda osatu edo burutu behar da, eta ondoren, administrazio lanpostua bakoitzarako, herri mailako ezaguera kontutan izanik, hizkuntz eskakizunak finkatu behar dira:

Gure herrietan (eskaldunak direnez): Lan Hizkuntza eta Zerbitzu Hizkuntza euskara da. Ondorioz, lanpostu guztiak eskaldunak dira, nahiz eta lanpostuaren ezaugarriaren arauera, euskararen ezagupide maila ezberdina izan: hitzegina, alfabetatua edo teknikoa.

b) Kontratazio berriak egiterakoan, hizkuntz eskakizunak bete behar dira.


Ez da aski aurrean definitu ditudan lanpostuen hizkuntz eskakizunak finkatzea, ondoren, bermatu beharra dago udalean lanpostu berriak betetzera sartuko diren langile berriek, lanpostu horien hizkuntz eskakizunak beteko dituztela. Horretarako, ezinbestekoa da udalak kontratazio deialdietan edo oinarrietan lanpostuari dagokion euskararen ezagupidea eskatzen duen ala ez, beti kontrolatzea, eta horrela ez balitz deialdia errekurritzea.

c) Helburua.

Administrazioa osoa, zerbitzu guztiak barne direlarik euskaraz funtzionatu araztea da. Euskara da bertako lan eta zerbitzu hizkuntza. Zerbitzua gazteleraz eskatuko lukeenari, eskubide pertsonal hori onartuz.

Guzti hau bideratu ahal izateko udalak, euskararen arloan, etengabeko lana burutzea bideratuko duten azpiegiturez hornitzea izanen da lehen lana, beren iharduera printzipio deklarapen hutsa gerta ez dadin. Eutsi.

J. Etxebeltzea



H.I.E.S.

Mende honetako gaixotasuna.

Hirurogeitamarreko hamarkadan eta modu ixilean hasi zen H.I.E.S. izurritea. Praktika jakin batzuk mantentzen zituen zenbait gizaki inork ezagutzen ez zuten gaitz bat hasi zitzaion elkarri kutsatzen. Gaixotasun hau, bertsiorik onartuenak oinaz, Afrikan sortu eta emigrazioa zela medio E.E.B.B.ra iritsi ondoren, mundu osoan hedatu zen. Garai honi, beraz, ixileko izurritea dei geniezaioke.

1981ean gaixotasun berri ezezaguna eta batez ere biztanlego jakin batengan eragindakoa zuela diagnostikatu zen lehenbiziko aldirian. Inork ez zekien zerk sortzen zuen, nola sendatu, nola hartu aurrea, erabat ezezaguna zen. Garai honi dei geniezaioke izurritearena propioki. Hasieratik ikerketzaileek beren tresnak lanean jarri zituzten eta, bortsu urte baino pasa ez direnean, jakinarazi gauza asko dakigu gaixotasunaz.


Tamalez, eritasunaren ezagutzarekin batera, izurrite soziala deiturikoa pairatzen hasi ginen: jende guzti-guztiak entzuten du H.I.E.S.ari buruz, gehienik aipatutako zuten noizbait. Jende aunitzek beldur izanaren zion...

Hasieratik sendatu ezinezko gaitza zela jakin zuten, kutsakorra, eta ziur aski ere birus batek sortua, nola aintzina hartu behar da...

Zerk sortzen du: agente eragilea birus bat da, bakteriak baino txikiagoa eta beste zelula bizien barruan bizi dena, Linfozitoetan hain zuzen ere. Zelula hoiak garrantzia haundikoak dira gorputzaren defentsa immunologikoarentzat.

Zer sortzen du: gorputzak zenbait eritasunei aurre egiteko duen ahalmenari eragiten dio, defentsa ahalmena murriztuz, Linfozittoa birusa bere baitan duelarik, hil egiten bait da.


Babes sistema murrizturik, zenbait infekziok, egoera aprobetxatuz, Linfozitoen lekua hartzen du. Honela "oportunista" deitutako gaitzak azaltzen dira, egoera normalean garatu ezingo luketen gaitzak babes sistemak deuseztatuko bait lituzke.



Nola kutsatzen da:

Sexu-harremanen bidez: hauxe da modurik harriskitsuena, sexualki aktiboa den biztanlego guztiarengan eragin bait dezake. Era askotako sexu-harremanen bidez kutsa daiteke; edozein koito bidez, ez da homosexuali bakarrik mugatzen, orain arte sinistuta arazi nahi izan diguten bezala; heterosexualak ere kutsa daitezke.

Odol bideetan sartuz: hemen osasun erabilerako tresneri guztia sartzen da (xiringa, bisturi...), txukuntasun gaiak (bizarra kentzeko makinatxoak, azkazalak moztekoak) odol kutsatuarekin ukipenik eduki dezakeen edozerk kutsa lezake, alegia. Ospitaletan edota anbulatoriotan erabiltzen den tresneriak, botagarria denez eta kutsatu gabe dagoenez, ez du arazorik sortzen. Hala ere, heroinomanoen artean sortzen dira arazoak, elkarri pasatzen bait dizkiote kutsaturik egon daitezkeen xiringak. Txukuntasun gaiak, norik berea arabiliz gero, ez dira kutsakorak.



tsuena, sexu-harremanen bidea da. Ez kutsatzeko sexu-harremanak izateari utz geniezaioke erabat..., edo, bertzela, preserbatiboak erabili.

Sexu-harremanak uzteari buruz hitzegiten dugunean, sexu-harreman susmagarriei buruz hitzegiten dugu, aste bukaeratako ligeak, emagalduekin harremanak, noizean behineko kontaktuak... Harreman hauek bide posible batzu dira, gaitzaren inkubazio aldia hagitx zabala bait da, eta orain dela bost-pasei urte harremanak eduki zituztenak ere eramaleak izan daitezke.

Baina gure lana ez da sexuari buruz moralizatzea. Bakoitzak nahi duena egin dezake, prebentzio bezala sexu-harremanik ez edukitzea utopia da.

Sexu-harremanak eduki nahi dituztenei buruz hitzeginen dugu, beraz. Zer egin behar dute aintzina hartzeko eta bertzeak defendatzeko?

Erran diezaiekeguna zera da: "barrera" sistemak erabiltzeko, eta sistemarik efektiboena preserbatiboa dela.

Praktika guztietan erabili behar da: ahozkoetan, baginaletan eta abar.

Baina berezi egin behar dira preserbatiboek dituzten bi erabilerak. Antisorgailu bezala, harremana heterosexuala eta baginala denean erabiltzen da, ernaltzea ekiditzeko.

Prebentziorako, berriz, HIESena ezezik bertze gaitz askorena ere, edozein giza jariekinek mukosekin ukipenik izan dezaken guztietan erabili beharra dago.


Ondorioz: kutsakor, zolgarri, sendabiderik gabeko eta harrapatzen

Bitartean eskura daukagun sendabide bakarra, jendeari trasmisio bideak eta aurre hartzeko moduak jakineraztea da.

Lehenbizikoa, trasmisio bideak, lehen aipatu dugu; bigarrena, berriz, aurea nola hartu, alegia, errex atera daiteke.

Besteenganatzeko bide bat xiringak baldin badira, nork berea erabiltzea izanen da modurik efektiboena. Osasun zentruak eta sendagileak erabilerak bakar bateko gaiak (xiringak eta abar...) erabil ditzaten esijitu behar dugu. Gure inguruko norbait heroinari atxekia baldin badago, egin behar dugun lehendabiziko gauza utz dezan komenatzea da, eta nahi izango ez balu, adierazi egin beharko genioke nola besteenganatzen den gaitza eta beti bere xiringa erabil dezan, ez diezaiola inoiz utzi inori, ezta besteei eskatu ere.

Besteenganatze beste bidea, garrantzi-





duena hiltzen duen gaitz batekin egin dugu topo.

Besteenganatzeko bideak argi daude: sexu-harremanen bidez, odol bideetan sartuz, odola eta bere etorkinez, amak seme-alabari (gestazio garaian).

Aurre hartzeko moduak eraginkorrek dira: erabilera bakar bateko osasun gaiak erabili behar dira eta preserbatiboak sexu-harremanetan. Eramalea denari, edo bere burua eramaletzat duenari, zera gomendatzen diogu: berzoldurak ekidi ditzala, bertze zenbait gaitz prebeni ditzala, agertu litekeen gaitza lehenbaitlehen trata dezala, bizimodua osasuntsua, elikadura orekatua, atsedena nahikoa, kirolak egin ditzala, eta ez dezala sustantzia toxikorik har.

Eta batez ere kontutan hartu behar da arrisku praktikarik mantendu duen edozeinek eramale bailitz jokatu behar duela,

jakin edo ez.

Ez dakit artikulu honekin nahi genuena lortu ote dugun, gaitzari buruzko zalantzaren bat argitu baldin badugu konformatzen gara, lortu ez badugu, barkaiguzue gure trakestasuna. Kasu honetan Nafarroako HIESaren Aurkako Batzorde Hiritarrera telefonoz deitzera konbidatzen zaituztegu, informaziorako telefono zerbitzua martxan dago astelehenetik ostiralera, 10etatik 13tara, eta honetan aditua den jendeak erantzun eta laguntzen saiatuko dira. Bertan adieraziko dizuete ere non egiten diren frogak, nork egin behar dituen, asistentzia errekurtsioak...; leku arazoa dela eta ez bait ditugu gai hauek denak artikulu honetan sartu ahal izan. Telefona 12.21.11

Fermin Castiella Lafuente. Sendagilea.
HIESaren Aurkako Nafarroako Batzorde Hiritarreko kidea.

Jabier Tirapu. Psikologoa.

æk ELARRE 88

maiatzaren 28 eta 29an

Aurten ere Bortzirietako eta Maldaerrekako AEKkoek AEKelarre antolatzeari ekin diote.

Jakinen duzuen bezala, ekitaldi honen joan den urtean izan zuen bere jaiotza eta lehen ospakizuna, "Mugarik ez" eta "Euskara larratu eta mugak urratu" lemapeetan.


Horretarako, inguruko eskualde guztietako taldeekin harremanetan jarri ziren; horrela: Irun, Iparraldea, Baztan, Leitza, Basaburua e.a.ekin batera, muga linguistiko eta territorialak gaindetzeko bidean ospakizun hau antolatzea erabaki zuten.

Lehen urtea izatean, lan aunitz eman zien antolatzailei jaialdi honen helburu, erranahia e.a. adierazteak eta gero azkenean eguraldia zela medio suspenditu egin behar izan zen, bertze egun batera gibelduz.

Erran behar gertakizun honek ondorio oso txarrak ekarri zituela: alde batetik lanean aritu zen jendea nahikoa lur jota gelditu zelako eta bertze aldetik 500.000 pztako. galera ekonomikoa ekarri zuelako.

Hala ere, antolatzaileek uste dutenez, "antolaketa haretan, jende pilo batek hartu zuen parte eta horrelako jai batek aintzinerara maiztasun batekin jarraitu dezan, guttienez behin, ongi atera behar du eta aurten berriro saiatuko gara. Gainera joan den urtean ospakizun hau antolatzera bultzatu gintuen arrazoi

guztiak oraindik bertan daude, beraz, behin gaizki atera zelako ezin dugu bertan behera utzi".



Iazko AEKelarrean "Suaren iluna" antzeslana antzestu zuten Bortzirietako AEKko ikasleek. Argazkian, sorginaren erretzea.



Iturengo joaldunak iazko AEKellarrean.

Ginera espero da aurtengoan Berako Udalak frontoiak utziko dituela, euria eginen balu ere ekitaldia ospatu ahal izateko. (Gogora dezagun iaz Berako Udalak ukatu egin zuela eskakizun hau, eta nahiz eta ondoren herri mailan firma bilketa bat egin, Udalak ez zuela baimenik eman, gero denok dakizkigun ondorioak izan genituelarik.

Beraz 1988ko AEKellarrea, Maiatzaren 28 eta 29an ospatuko da Lesakako parajea den Alkaiaga auzoan.

Dagoeneko ia urrats batzu emanak daude antolaketa honetan. Horrela, kartel leihaketa bat ospatu da eta dagoeneko batzu entregatu dituzte beren lanak.


Bertzalde Apirilaren 9an inguruko eskualde guztiekin batera, bilera eta afori bat ospatu ziren Lesakako "Arrano elkarte" eta badirudi berriz ere giro ederrean jartzen ari dela besta honen ingurua.

Eta iada, nahiz eta ez finkaturik egon, nolabaiteko ekitaldia ere badaukate: Antzerkia "Leitzarango Maskarada", Hertzainak, Minxoriak, jokuak, apustuak, aizkolariak, txingak, inguruko herrien artean sokatira txapelketa, futbola,

bazkaria, fanfarreak, haur jokuak, bertsolariak, Izan Taldea (berbena) e.a. Eta zer erranik ez! bakoitzak ekar ditzaken aportazioak.

Espero dezagun aurten, joanden urteko erruak konponduz eta orduko etsaiak orain ongi portatuz, antolatzaileen nahiak neurri on batean beteko direla.





ten, jakintsuki makurtuz ilargiaren irudia jasotzeko eta arropa ziztzi-likatzeko zutoinean kokaturiko bigarren ispiluan isladatzeko. Loturak ispilutik ispilura jarraitzen zuen, baratza zeharkatzen zuen tomatondo kañaberak aprobetxatuz eta, etxera ailegatzean, isurbide eta tutuerietatik goratzen zen eta Jonen leiho-raino igotzen zen. Gauean lan egin behar zutenez, zer egin luze eta neketsua izan zen. Une batean eman zuen ispilu gutxi zutela baina premiazko errefuertzuak aurkitu zituzten eta arrakastaz bete zuten ekintza.

-Eta non kokatuko duzu orain?
-galdetu zuen Eduardok Jonen leihoan ilargia bideraturik ikustean.

-Komoda gainean- erantzun zuen adiskideak-. Tirada bat gehiago eta urez beteriko aspil batean jarriko dugu azken ispilua. Dakigunez, ilargiak maite du hezetasuna.

Bazeukaten han. Urazala mugitzean, taupatzen zuela itxura ematen zuen. Haunditzeko beira baten laguntzaz haundi eta zehaztuta ikusten zen, dotorea oro, bisitaldira joateko jantzita izanen balitz bezala. Optikaren kontu osoa zen, baina emaitzek inizatiben hedaketa justifikatzen zuten.

Ilusioen objetua izan den edozein gauza lortzeak desenkantu pixka bat eramaten duela eta, materialen bilketan parte hartu zueneko neska batek irazkindu zuen, "orain han zeukatenez gero", ikusten zuen ez zela hainbesterako.

-Bizitza da- sententziosoki ihardetsi zio Jonek. Ilargira ailegatuko diren lehenengo kosmonautei horixe gertatu zaie.

Jende nagusi guztiak kritika asko egin zuen. Jonen amak erran zion aspila isuritzen bazen astinduko zuela, eta Jonek lasaitu behar zion ilargiak ez zuela zikintzen segurtatuz. Aitak (ilargiari buruzko solasaldietan nahiko eszeptiko zena) Joni aparte deitu zion:

-Egiazale izan zaitetz - erran zion-. Ez du pena merezi, ezta? Lehen eguzkia txoriburuen buruan jartzten zen. Orain ilargia paratzen da. Nora joanen gara horrela? Nik diot ilargiak ez duela hainbeste garrantzirik.

Gizonetik gizonari bere aita mintzatzan zitzaion bakoitzean Jonek eskertzen zuen benetan. Errendimendu

guztia emateko eta ez okertzeko premiaturik sentitzen zen.

-Nik uste garrantzia duela - erran zuen diskrezioz. Izanen da une bat non, handik, norbaitek erranen baitu: "Ze Lur polita dagoen gaur". Edo mintzatuko da Lurgoraz eta Lurbeheraz. Konpromezu haundiko kontenplazioak izanen dira.

Konturatu zen bere aitak beste leku batera begiratzzen zuela eta sentitu zuen bihotzeko kontaktua galzez atela. Eman zion lupa aspilaren hondoan ilargia kontenplatzeko eta aitak onartu zuen. "Jainkoaren oparia" irazkindu zuen amore emateko gogoekin. "Erliebezo postalen japoniar haiaietaz gogorarazten dit".

-Pentsatu behar da errebotetaz ere -Jonek erran zuen Ilargira joanen gara eta, gainera, asko baliatuko digun gauza zenbait aurkituko dugu.

-Zer erran nahi duzu? -galdetu zuen aitak-.

-Erran nahi dut hori, errebotea.... Dena aprobetxatzen da. Adibidez: baratzen jarri ditugun ispiluak hegatzabalak harrapatzeko erabil ditzakegu.

Aitak konprenitu zuen borondate on sakona eta besarkatu zuen Jon. Hau zen kontua: bapatean oso elkarturik sentitu ziren, ilargiak aparte eta gertakizunak aurreztu nahi gabe. Gelatik atera baino lehen aitak erran zuen:


-Dena dela hegatzabalenari buruz deus ez. Badakizu txorik ez genituela ehizatuko geratu ginela...

- Badakit. Adibide bat zen. Erran genezake ispiluak ere balio izanen dutela gereziak kosk egitera txoriak ez etortzekotan.

- Horixe. Eta dena erran behar da: ilargiak anitz apaintzen dizu komoda. Ez ahaztu egunero ura aldatzea.

Irribarre egin zioten elkarri bihotz bihotzez eta, bakoitzak bere kontu, benetan elkar maite zutela erabaki zuten.

"La lluna a casa" Pere Calders.
Joakin Balentziak itzulia.



MINAREN MINEZ



Tom-en bizitza ez zen azti eta andra-mari zoragarrien mundua izan. Ez zuen, amerikar filmeetan ateratzen diren haurren zorte ezin hobea izan, ez arraioa. Izan ere, Tom beltza zen, eta beltza izateak baztertu eta azpiratu bat izatea erran nahi zuen.

Tom, hamabortz bat urteetako mutil garai eta argala zen, Bazuen bai, gosea iragan duenaren arrasto nabarmenik. Egia erran, argala baino argalagoa zen. Bere saihets hezurrek emana zuten jadanik, ttikiegi zetorkion gorputz ahul-motelean, beren aurkezpena. Ile ikatz-beltz kizkurra zuen, begiak berriz, odol noble direnen ezaugarri edo seilu bakarraz horniturik: sutsutasunaz hain zuzen ere.

Honetaz gain, bizitzak, patuak, jasan erazi zizkion zigorrak ez eramandako eztitasun azken apur bat, eta denok oso gutti daukagun heldutasunaren sakontasun pittin bat gordezten zuen.

Bai, gaizki bizitakoaren eredurik bikainenetariko bat, liteke Tom. Ez zuen herri-eskolan oinik ere ipini, analfabetu hutsa zen, ezen herriko mutilekin harreman txarrak izan bazituen, bere gurasoak ere, txiroetan txiroenak ziren. Tom bertzelakoa zen.

Bortz urte zituelarik jasan zituen lehen gaztiguak, lehen larrialdiak. Bere aita mozkor hutsa zen, whiskia delakoarik gabe bizi ez daitekeen hoietako bat, eta berarengandik jaso zituen, mozkorrak ematen dituen ohizko tratu txar eta jipoiak, eta beno, mozkorra mozkor denez gero, ama-semek eskalearena egin behar izan zuten. Gero denbora pasa eta, anak zapi zuria atera eta ordurarte haur izutia bailitzen, ezkutatua zuen ahultasuna, urruti ihes eginez kanpora jaurtiki zuen, urruti bai, ezen bertze mundura bidali bait zuen bere burua.

Honen ondorioz, Tom eta bere hamabortz urtetako anaia, bakarrik gelditu ziren, bere aita hordiarenean.

Arazo larriak jasan zituzten eta azkenik gertabeharrekoa, gerta zen: alkoholen gozoki murgilduta zebilen aita, hil egin zitzaion. Ez zuten dolu haundirik sentitu, aitzitik, berrehun kiloko harria galdu izan balute ez ziren arinago sentituko.

Lau urte pasa, eta bere anaiak soldaduzkara joan behar izan zuen. Bakarrik gelditu zen, arraroa baina jende multzo haundiez inguraturik egon arren, tximeleten artean dagoen eulia bezala sentitu zen: bakarrik.

Bai, irain, bai burla eta bai mesfidantzarik handiengan bete zuen bere pubertatea, eta gutti bailitzen tupustean, harra-

SANJUAN - XAR

Mende luzez bizitutako biziduna bailitzan; eguzkia, ihartzera doala dirudi. Urteen eraginez zimurtuta dagoela erran liteke, bere gorputzak ez duela kemenik, hiltzear dagoela. Hala da! Egun luzea, uda bihotzeko egun amaigabea iragan ondoren, izu mendiaren atzekaldean gordetzera doa, eta haren begiradak iada ez du jaiotzean zeukan begirada dizdiratsurik. Zaharraren zaharrez, hil aintzinatik bizidun orori nabari zaizkion aztarnak ageri dira beregan: nekea, indarrezta eta atsedena gogoia. Bai! Agian atsedena bakarrik du bilatzen.

Bitartean, gizakiak lanean diraute han eta hemen, eguzkiaren azken argi-printzak probetxatu nahian, ilunabarreko giro atsegina alferrik galtzera utzi nahi ez bailuten. Batzu belarra ebakitzen ari dira, hazindentzako bazka bilatzearen ahaleginean. Gehientsuenak, ordea, arto tartean ikus daitezke; landare ttipiak jorratzen. Izan ere, garaia da, udaren sarreran gaude: Sanjuan bezperan.

Guziak ez darraite ahalegin horretan, halere. Aranibar baserritik Sanjuan-xar ermitara doan abre-bide zaharretik noan bitartean, ez dut pentsatzeko astirik izan, eta ermitako atera iritxitakoan soinuak entzutean, harridura sortu da enegan. Ez nuen uste inor aurkitzerik, nahiz eta aintzina entzuna izan norbait izaten zela egun berezi hartan beti han. Hala da! Gaur ere hantxe ageri da Labedo atso zaharra, gaztarotik orain artean burutu ohi duen eginkizun bera betetzen: Sanjuan egunerako ermita txukundu eta apaintzen.

Une batez solasa eman gabe egon naiz, ene presentziaz ohar ez dadin, bere lanean kontenplatzearen. Belaunika dago santutzar erraldoia trapu batekin igurtziten eta, den baino ttikiagoa dirudi egoera horretan. Soineko beltza darama jantzirik eta pañulo kuadrato batekin estalirik du burua. Halako batez, altxatu egin da mantxo-mantxoan, alboan daukan isatsa hartzera inguraturik. Orduan, hitza ematea erabaki dut.

- Iepa! Zer, orain ere lanean beti bezala? -Erran diot, zerbait erran beharrez.

- Hara! Nola zu hemendik, santua agurtzera zatoz noski? -Galdeginez erantzun dit, lanean jarraituz, ene bisita espero lukeenaren inpresioa emanez.

Zeregin jakin ezean, nik ere lanari ekin diot; isatsa pasatzen lagunduz, hango eta hemengo lar muturrak moztuaz. Laister, Labedo zaharra, ermita inguratzen duen ormaren gainean jarri da atsegin eta, nik ere gibeletik jarraitu diot bere ondoan eseriz.

- Garai batean lan hauek niretzako josteta bertzerik ez ziren eta orain berriez arratsalde osoz ezin egin.

Orain, atso zaharra aintzinez-aintzin ikusitakoan, inoiz baino garbiago oharitzen naiz bere aurpegiko zimurraz, begien indarrezaz, arrailez beteriko eskuaz. Zenbat urte ote ditu gaixoak! Zer ez ote dute ikusi bere begi itzaliek? Nekea age-


ean iskanbilen bat izanez gero, nagusiarengana jotzen zuten, honek justiziaz epea emanen zuelako ziurtasun osoarekin. Ez zen egun batez eraikitako jabegoa. Ez horixe! Mendez mende eta egunik egun irabazitako ospea zuen famelia hark. Batek pixka bat eta bertzeak apur gehixea; belaunaldiz belaunaldi pilatzen joandako ondasuna zen jaun hark administratzen zuena. Bertze hainbat jabego indartsu, famelien arteko iskanbiletan lur jotzen zuten artean, Mozpikotarren etxaldea indartzen joan zen. Hauxe zen hain zuzen ere baraien harro sentitzeko arracoi nagusia: Haserre eta iskanbilik eza.


Lurra bezain usadio zaharra erabiltzen zuten aitarengandik semearengana jabegoa pasatzerakoan: Maiorazgoa. Seme zaharrena egiten zen etxaldearen eta ondasun ororen jabe eta gainerako senideek haren agintuetara makurtu behar zuten, ez zegoen bertze erremediorik. Hala gertatu zen beti, eta hargatik joana zen Mozpikotarren erreinutza etengabe indartzen.

Baina, Joxe Mozpiko arazo larri batekin aurkitu zen. Bera eta Garaxiren ezkontzaren ondorioz, zoriontsu bihurtzen zuten poortz seme-alaben gurasoa zen. Harrigarria bazen ere, bortzak batera izanak zituen eta gertakari honek harritu ezezik harritu ere egiten zuen. Bazekien jakin, Mozpikotarren usadio zaharra ezin izango

zuela bete. Haseran, poza zerion umeen bizkortasuna eta osasun onaz oharturik, ez zuen astirik deus gehiagotan pentsatzeko. Baina urteak aintzina joan eta haurrak hazi ahala, kezka areagotzen zihokion. Lagun min eta emazteak jabegoa nori utzi behar zion galdetzen zioten eta zer erantzun jakin galdetzen zen. Aholkua ematera ausartzen zirenak ere baziren; indartsuenari emateko erraten ziotenak. Berak, ordea, bazekien jakin hori ez zela bide zuzena. Justiziak errespetoa sortzen duen bezala, indarrak bildurra eta gorrotoa bertzerik ez baitu erakartzen. Baina, bide zuzena aurkitu ezinean, osasuna galtzeraino iritxia zen.

Ilunabar batetan, hogeitamar urtez bila ari zen erantzuna aurkitzea ezinbestekoa zela jabetzean, etxetik irten zen pentsatzera. Gora eta behera, harat-honatean ibili zen denbora luzez eta iada nekaturik, burua lehertzeaz zuela etxerako bidea hartu zuen. Sartu aintzinatik ordea, etxe atariko iturrian geratu zen ur trago bat edateko. Iturriak hiru toki desberdinetik zuen sorkuntza, nahiz hirurak elkarren ondoan egon. Batetik trago bat egindakoa, sapore berezia zuela iruditu zitzaion. Bigarreneira joan zen frogatzera eta harriturik, ez zela ura ohartu zen. Hirugarreneira zuzendu zen gero, eta edan orduko, hainbat kezkatu





zeukan problemarentzako erantzuna bazuela ohartu zen. Udan sartu eta bi egun geroagoko gauerdian gertatu zen guzi hurra.

Biharamonean, argitu orduko, famelia eta langile guziak bildu zituen etxe atarian, eta erabakia denen aintzinean eman zuen.

"Gaurdanik aintzina, eneak diren lurra eta ondasunak nire seme eta alabentzako izanen dira. Luzaroan egon naiz pentsatzen eta azkenik erabakia hartu dut. Atzo gauerdian, atarian dugun iturriko ura edan ondoren, begiak zabaldu zaizkit. Nire kezka nagusia, etxaldearen haunditasuna zaintzea zen, eta hori aurrerantzean ere gerta zedin, bidea bilatu ezinean aritu naiz luzaroan. Orain ohartu naiz oker nenbilela. Haunditasuna ez du ondasunik bakarrik ematen, justiziak ere bai. Horregatik, justizia erabiliz banatuko ditut ene lurra eta ondasunak. Hemendik aintzina, Anttoni, zureak izanen dira Ekaitza mendiaren magalean dauden lurraldeak. Aitor, zu izanen zara Larhun mendiaren gerizpean dauden lurren jabe. Ander izanen da Agina mendiaren pean dauden lurraldeen nagusi. Garatxirentzako izanen dira Usategieta inguruko lurrak. Aritz, zu izanen zara Unanu mendiaren gibelean dauden lurren jabe. Honela, Mozpiko etxaldea zatitu egingen da, baina, ez da haserririk sortuko gure artean eta, gure zainak banatuko dira alde orotara. Hemendik aintzina, bakoitzak berean bakarrik aginduko du, eta galerazia bertzeen lurraldeetan hankarik jartzea ez bada pake legean. Halere, ez da honekin

amaituko. Urtean behin, bildu egingen gara hementxe bertan, gaurko egunean, elkarri laguntasuna adierazteko. Orain, bakoitzak jarrai dezala bere bidean."

II

Istorio harrigarri hau kontatu eta une batez niri zuzenki begira egon ondoren, aitaren egin eta gero isilik geratu da Labedo atso xaharra. Isiltasun hori, txetela eta txirritxen kantuek bakarrik du hausten. Erran liteke gure alboan dena geldirik dagoela, guzia lotan. Baina ez! Ez da egia. Urrutian dauden baserrien atarian ikus daitezken su txinpartak ezeztatzen du inpresio hori. Sanjuan bezperako usadio zaharra ari da betetzen urte bat gehiagoz. Ikusi ez badaiteke ere, irudipenak erraten dit su horien gainean saltoka dabiltzala zahar eta gazteak, "Sanjuan Sanjuan, gaitzak urrun eraman" erranez, hemen beti egin ohi den bezala.

Bitartean, Labedo xaharra isilik dago, pentsatzen. Beharbada gogoratzen ari da mundu honetako ibilbide luzean izandako gertakizunak. Ez! Iada zaharregia da gauza horietaz arduratzeko. Seguruenik itxoiten dago, zer ez badaiki ere. Agian, heriotzan du pentsatzen.

- Aizu! Ez al duzu etxera joan behar?
-Galdegin diot, loak hartuko duen beldur naizelakoz.

- Oroitzapena dudanez geroztik, hemen-
txe eman dut Sanjuan egunaren sarre-
ra. Ez dut orain ohitura aldatu behar-
ko...

- Zergatik egoten zara hemen?

- Gauerdian hiru iturritik edateko.
Hori erakutsi zidan ene amak eta pena
bakarra, jarraitzailerik ez izana da
gauza bera irakasteko.

- Eta zer du bada urak gauerdian? -Gal-
degin diot, Labedo xaharrarengandik
entzun nahi bait dut etxean hainbat
aldiz entzundako sinesmena.

Oraindik ez dakizu? Gaurko gazteak deus
ez dakizue! Arantzako elizako erlojuak
gaueko hamabiak lehen aldiz jo eta bi-
garrena jo bitartean, ardoa ateratzen
da.- Erantzun dit Labedok, aitaren egin

ondoren, berriro esku artean burua hartu
eta isilik geratuz.

Orain, isiltasuna, beharbada nabarme-
nagoa da gure artean. Iada txirritxa eta
txetelak isildu dira eta isiltasunak gu-
zia inguratzen du. Dagoeneko urrutiko
baserrietan ez da surik bistatzen. Orain
bai! Guzia dago geldirik eta lotan. Itza-
lak bakarrik dabilta gora eta behera,
nora joan jakin ezean. Munduan bakarrik
nagoeneko sentsazioa sartu zait bihotza-
ren xokorik izkukuraino eta bildurra sen-
titu dut, ondoko zuhaitzaren adarrean
pausatu den ontzak oihu gardena egin duen
arte. Seguruenik ontza, Labedo eta ni,
hirurok bakarrik gaude erne gau ilun ho-
netan. Ez! Hirurok ez. Labedo zaharra
lo geratu baita gauerdia iragarriko duen
ezkilen zain.

Assura



"Gure Txokoa" elkarteak antolatutako Ipuin Leihaketan
SANJUAN-XAR Ipuinak, bere sailean, lehen saria esku-
ratu zuen.

HONELAKOAK BAGENEKIZKIEN

Saia gaitezen berreskuratzen... erabiliz

Aintzineko alean irekitako sail honekin jarraitzeko, hagitz guttitan entzun dugun hitz bat aipatuko dugu lehenik.

GOGANBEHARRA: susmoa, sospetxa.

"Banuen goganbearra, bai". Nolabait, "horrelako zerbait espero nuen", "sospetxatzen nuen", "beldur nintzen", adierazten du.

Ondoren, zenbait tresnaren izenak, gehientzat ezagunagoak.

EZTERA : Aizkorak eta horrelako tresnak zorrozteko harri borobila. Egurrezko egitura baten gainean jartzen da, burdinezko kider bat ardatz edo eje duela, eta bueltara ibilerazten da eskuz edo hankaz.

GALBAHEA : Arto irinari zahia kentzeko erabili izan dugu. Dirudienez, ogi irinarentzat erabiltzen zen, izenak adierazten duen bezala: gal (gari) - bahea.

IRAGAZKIA: Hemen "irazkia" erran ohi da. Edozein likidori izan litzaken zikinak kentzeko erabiltzen da. Eta ekintza horri "iragazi" deitzen zaio. Kafea (eltzean egiten denean behinipein), iragazi egiten da. Aditz honek erranahi zabalagoa ere badu. Adibidez: "pareta horri ura iragazi egiten zaio" (filtratu).

Eta lau aditz

IRALTXI edo **IRALKI.** Erdaraz "cerner". Adibidez artopil edo taloei, irina iraltxi egiten zaie, gainetik irin pixka bat bota. (Gozotegietan ere ikusten dira gainetik azukrea edo irina iraltxia duten zenbait pastel).

TANTIKATU: Guk dakigula, ezezka erabiltzen da: "ez da tantikatu ere egin". Erdaraz "ni se ha inmutado" . Adibidez: "irainka eta burlaka ari zitzaizkion baina bera ez da tantikatu ere egin.

TALASTATU: Ontzi baten barrenean dagoen likidoa, ontzia mugitzerakoan lurrera isuri.

XUKATU : Erori den ur hori zapi batez idortu egiten dugu normalean. Ba, horixe, horixe, xukatu egin dugu!. Era berean eskuak garbitu ondoren eskuzapi batez xukatu ohi ditugu. Negar egiten dugunean, saiatzen gara isurtzen ditugun malkoak eskuz xukatzen.

Jatorriz, adjetiboa izan liteke. Izan ere, norbaiti aditu izan diogu "baratxurizopa xukua" gustatzen zaiola, idor samarra alegia, ur aunitzik gabea.

Oraingoaz, hau da daukaguna. Seguraski, norbaitek izanen du aipatutako hitzei buruz zerbait erran beharra, edo zuzenketaren bat egin beharra. Bertze aunitzek jakinen dituzue hitz gehiago. Berriz ere dei egiten dizuegu zuen apartazioak bidal ditzazuen.

Bortziriak eta Maldaerrekako AEK

Gau ilunbetsua

30/5/31 GALDU EGIN
GA DUZU DESAFIOA



Gau ilunbetsua zen, zimiztek Iturengo gaztelurantz hegan egiten zuten. Eguberrietako oporraldia zen, urtarrilaren bigarren asteartea hain zuzen ere. Gau hartan beldurturik nengoen, eta bapatean, klintx!!, nere gelako leihoaren kristala norbaitek hautsi zuen. Esku batek leihoko krisketa irekiaz nere gelan sartu zen, Grapkre anderea zen! (Andere hau Xanapaxa planetako zenbait kondairetan agertzen da beti gaiztoarena eginez). Hartu ninduen eta barnebide batetan zehar eraman ninduen Iturengo gaztelurat. Barnebidea iluna zen, meharra eta tantak lurrera erortzen direnaren soinu horrekin, tin-tinarekin.

Eskailera batzu goratu ondoren, hauek, pareta batetan bukatzen zirela ikusi nuen, baina nire harridura, pilareren bat ukitu ondoren eta eskailerak jangela batetara ailegatu arte jarraitzen zutela ikusterakoan haundiogotu zen. Jangela, iluna zen, misteriotsua, goibela eta oso hotza. Begiak itsi eta ireki nituen bitartean, gela, eraldatu zen. Orain polita eta dotorea zegoen eta bertan Lratendirs senar-emazteak zeuden. Senar-emazte hauek nere herriko irakasleak esan zidanez, 1765. urtean, gas sobredosi baten ondorioz hil zirelako ziren ezagunak eta aisa gerta zitekeen, beraien espirituak Iturengo gazteluan, Darralda mendiaren gainean, ekaitza izaten den gauetan ikustea.


Hauek soto batetara eraman ninduten eta han botika pila bat eman ondortik ataute batetan sartu ninduten. Konputagailu bat zegoen hantxe eta nola niri botiken sobredosiak ez zidan efekturik egin, bertan, (konputagailuan) egitarau bat egin nuen baina ez nuen denborarik izan atateatik ateratzeko eta gero Lratendirs senar-emazteak banpiroen hilerri batetan lurperatu ninduten, baina kontzetratu nintzen eta ataute hartatik atera nintzen eta banpiroekin borroka egin ondoren nere etxera ailegatu nintzen. Hurrengo egunean dena aztertzeraz joatea bururatu zitzaidan, baina hurrengo egunean Darralda mendiaren gainean ez zegoen gaztelurik, desagertu zen. Ametsa bakarrik izan ote zen? Jakin ezazue, orain medaila bat daukadala, eta horrek Iturengo gazteluan egondu naizela esan nahi du, zeren medailan zera jartzen du: "ITURENGO GAZTELUAREN OROITZAPEN BEZALA IBANI EMANA"

EGIA ALA GEZURRA AL ZEN NIRI GERTATU ZITZ Aidana??

Iban Isasi Mindegia, 13 urte.



ZURE ARIMA NAHI DUT NIK, UNE
ONETATIK GALERARTE DEI ESITEM
Z RADIDAZU, LIBRE UTZIKO ZAI-
UT. BESTELA, ORDEA, GAURDA NIK
L ARTE, ETA BAITA GERO ERE,
NIREA IZANGO ZARA.



GOIZUETA IÑAUTERIETAN

Estanis Perurena "OLAXO"

- 1) Gogoan genitula
gure Eguberriak
festak ekarri ditu
gure urte berriak
hain maite dituenak
Goizuetako herriak
indarrez esaten dut,
Gora Iñauteriak!
- 2) Aurten ere gazteak
ez geunden zalantzan
iñauteri on batzuk
egiteko esperantzan
igande gauetikan
nahiko soñu plazan
nahi zuenak ibili
saltoka eta dantzan.
- 3) Gero baserritara
astelehen goizian
erdi ziraldoka edo
ziarka antzian
aldapak ikusita
lanak e(re) bazian
halere igo genitun
abaila latzian.
- 4) Bederatzik aldera
ginan abiatu
gaueko zazpitako
bueltan ailegatu
herrian jende asko
egin zen kezkatu
hoiek biderikan gaur
ez dute bilatu.
- 5) Astearte goizian
alairik bihotza
dantza pixkat eginez
bota gendun hotza
goiz eta eguerdian
kordiona hotsa
hortan onak dauzkagu
Xanti ta Arroxa.
- 6) Bazkalduta ondorian
ginaden atera
gure Zahagi Dantza
hori egitera
salto ta ziripurdi
hara ta honera
pizkorragoak dauzkagu
urtetik urtera.
- 7) Gure iñauteriak
hola dira beraz
ikusitako dana
ezin eman hitzaz
gauen bazegon hor
makina bat "disfraz"
nor ziran ezagutzen
etzen oso erraz.
- 8) Beraz izandu dugu
hainbeste istori
ustez kalte haundirik
egin gabe inori
nahi duenak irakurri
hortxen dago hori
ta besterikan gabe
agur guztiori.

POTRO KILO



Nere
buzkernak
aszensolean
botatze ku
gordetzen
dizkiat

500
A
599



buzken
goxoak
lxilak
lunzunzeak.

FOUOU

usaitsu
usaitsuak

harritzekoa
bada
ere
neri beqina
jel ditzen
dituk

Jende
argiak
? ez... ?

batzuetan neska politen
ondoan botatzen
dizkiat

eta
berrehala
alde
egin.

ongi jantzitaku
bat sartu
baino lehentxeago

botatzen
zidateken
beqinada ez delk
ahantzekoa...!






ZUTARRI




FMZ
IERX 87. Sisko

TABAKOA

KALTEGARRIA DA





175 pzta.

Imprime Garrasi. D.L. NA 1324/85